

15'

UZTAILA 2023 JULIO

**UDALEKUETAN
GOZATZEN HASI DIRA
TXIKIENAK**
LOS MÁS PEQUEÑOS
DISFRUTAN DE LOS
UDALEKUS

3

**UDAL KORPORAZIO
BERRIA EZAGUTZEN
DUZU?**
¿CONOCES LA NUEVA
CORPORACIÓN
MUNICIPAL?

4



DESKARGATU ETA IRAKURRI
ALDIZKARIA ZURE
MUGIKORREAN

DESCARGA Y LEE LA
REVISTA EN TU MÓVIL

 @lezo_udala

 @LezoUdala

 @LezokoUdala

Lezoko Udala
Gurutze Santuaren Plaza, 1
20100 Lezo
943 524 650
www.lezo.eus



**MIKEL ARRUTI
SALABERRIA,
LEZOKO ALKATE
BERRIA**

**NUEVO ALCALDE
DE LEZO**



Eskerrik asko, Lezo! ¡Muchas gracias, Lezo!

Mikel Arruti Salaberria
Lezoko Alkatea

Lezoko alkate moduan, udal aldizkarian idazten ditudan lehenengo hitzak eskertza hitzak izango dira. Mila esker gudan konfiantza jarri duzuen lezoar guztiei, baita beste aukera baten alde egin duzuen herritarrei ere. Mila esker Jesus Mari Martiarenari, udalbatzan ez jarraitzea erabaki bazuen ere, ekainaren 17an burutu zen kargu hartzean alkateari ematen zaion zumitzezko uztaia bere eskutik jaso izanagatik. Herritar guztiak kontuan izanda gobernatuko dugu. Apaltasunez eta herritarrekin harreman zuzena izanez. Herritarrekin eta herritarrentzat. Elkarlana izango dugu ardatz: herritarrak, elkarte eta eragileak, alderdiak eta udala. Guztiok batera arituz Lezok aurrera indartsuago egingo baitu. Jarrera irekia izango dugu. Guztiok nahi dugu Lezo biziago eta bizitzeko atseginoago bat. Hori izango da gure ikur eta ipar. Bukatzeko, mila esker berriro ere zuen konfiantzagatik, gozatu udaz eta jarrai dezagun gure herriaren alde lanean.

Como alcalde de Lezo, las primeras palabras que escribo en la revista municipal serán palabras de agradecimiento. Muchas gracias a quienes habéis confiado en nosotras y nosotros, así como a quienes habéis apostado por otra opción. Agradecer a Jesús Mari Martiarena que, a pesar de haber decidido no continuar en la corporación municipal, acudió para hacerme entrega del junquillo que recibe el alcalde. Gobernaremos teniendo en cuenta a toda la ciudadanía. Con humildad y en contacto directo con ésta. Con y para los y las lezoarras. Nos centraremos en la colaboración entre la ciudadanía, las asociaciones y agentes, los partidos y el ayuntamiento. Porque juntas y juntos conseguiremos que Lezo avance con más fuerza. Tendremos una actitud abierta. Todos y todas queremos un Lezo más vivo y más amable para vivir. Ese será nuestro símbolo y nuestro norte. Para terminar, gracias de nuevo por vuestra confianza, disfrutad del verano y sigamos trabajando por nuestro pueblo.



Jesus Mari Martiarena

Jesus Mari Martiarenaren agurra Despedida de Jesús Mari Martiarena

Ohorea izanda zuen alkatea izatea, Lezoren zerbitzura, bi legealdiotan. Eskerrak herritarrei eta Lezoko herri osoari aukera honengatik. Eta gure esker ona zinegotzi izandako eta udaleko funtzionario eta langileei. Zuen lana eta gogoia eskertzeak dira.

Alkate honek eta Euzko Alderdi Jeltzalearen udal-taldeak, alkatetza eta udal-gobernua hartu genuenean baino Lezo hobea uzten dugu. Bide onetik doan herria, pertsonengan inbertitzen duena, zorrik gabea eta aberatsagoa. Emaitzak begi bistan dira eta proiektu berriak martxan. Nire alkatetza amaitu da, gure taldeak Lezoren alde lanean segituko du udalbatzan.

Lezoarrok, agur t`erdi, bihotz bihotzez.

Ha sido un honor ser vuestro alcalde, estar al servicio de Lezo, dos legislaturas. Agradezco la oportunidad a la ciudadanía y a todo el pueblo. También a las personas que han sido concejales y, especialmente, a las y los trabajadores municipales. Agradezco vuestro trabajo y esfuerzo.

Este alcalde y el equipo de EAJ-PNV legamos una Lezo mejor. Que avanza por buen camino, invierte en personas, sin deudas y más prospera. Son hechos y proyectos en marcha. Mi mandato ha finalizado, nuestro grupo seguirá trabajando por Lezo desde la corporación.

Agur t`erdi lezoarrok, bihotz bihotzez.

UDALEKUAK

Dozenaka jarduera aurtengo udalekuetan

Lezoko udalekuak hasi dira! Uztaila osoan zehar, etxeko txikienek gozatu egingo dute antolatuta dauden dozenaka jarduerekin. 3 taldeetan banatuko dituzte aurtengo ikasleak: Txikiak (HH3-HH4), Ertainak (HH5-LH1.LH2) eta Handiak (LH3-LH4-LH5-LH6). Haurrei aisialdi egoeran euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzea du helburu nagusi, udalak antolatzen duen egitasmonek.

Giro euskaldun eta atsegin batean jolasak, dantzak, kankak, antzerkia eta beste hainbat ekintza egingo dituzte, Lezoko ohiturak eta ingurunea ezagutzen dituzten bitartean. Hala, ia 200 haurrek ezagutza-jolasak, txangoak, jolas-musikatuak, eskulanak, herri kirolak, ipuin kontaketa... izango dituzte.

Ekitaldi garrantzitsuenen artean: San Fermin eguna, Uraren eguna, Lasaitasunaren Eguna, Bizikletaren Eguna eta Zikinaren Eguna.

Hilabete zehar, tenperatura altuak iragarrita daudenez, ur-jolasak ere antolatuko dira eta igerilekuan gozatu egingo dute txikienek, iaz egin zen modura.

Herri Eskolan elkartuko dira guztiak egunaren hasieran eta etxetik kantimplora, hamaiketako eta eguzkitako crema eraman beharko dituzte. Gurasoek beharrezkoak diren material eta arropen informazioa jaso dute lehenik.

Uztailaren 28an, ostirala, udalekuei amaiera emango zaie, aurtengoa, mozorro festa dibertigarri batekin.



Muchas de actividades en los udalekus

¡Han comenzado los udalekus de Lezo! Durante todo el mes de julio, los más pequeños de la casa disfrutarán con las decenas de actividades que se han organizado. Los y las participantes estarán divididos en 3 grupos: Txikiak (HH3-HH4), Medianos (HH5-LH1y LH2) y Mayores (LH3-LH4-LH5-LH6). El objetivo principal es el de ofrecer a los más pequeños la posibilidad de disfrutar mientras hablan en euskera.

En un ambiente euskaldun y agradable realizarán juegos, bailes, canciones, teatro y otras muchas actividades, mientras conocen las costumbres y el entorno de Lezo. Así, casi 200 niños realizarán juegos de conocimiento, excursiones, juegos musicales, manualidades, herri kirolak, sesiones de cuentacuentos...

Entre los actos más importantes se celebrarán el Día de San Fermín, el Día del Agua, el Día de la Tranquilidad, el Día de la Bicicleta y el Día de la Sociedad.

A lo largo del mes, ante la previsión de altas temperaturas, también se organizarán juegos de agua y también irán a la piscina para refrescarse.

El punto de encuentro será la Herri Eskola al comienzo del día y deberán llevar de casa la cantimplora, el almuerzo y la crema solar. Los padres y madres han recibido toda la información sobre los materiales y las prendas necesarias.

El viernes 28 de julio se pondrá fin a los udalekus de este año con una divertida fiesta de disfraces.

En el Pleno del 17 de junio, tras jurar sus cargos de concejal, Mikel Arruti Salaberria fue elegido nuevo alcalde de Lezo. Es lezoarra, nacido en 1977.

Recibió el junquillo de mando de manos de Jesús Mari Martiarena. El propio Martiarena (que era candidato a alcalde) no tomó posesión del cargo de concejal y en su lugar le correspondió el último cargo de concejal a Ion Pombar.

El primer discurso de Mikel Arruti fue muy ilusionante y emotivo; dando las gracias a su equipo, a su familia y a todos los lezoarras:

“Gobernaremos teniendo en cuenta a toda la ciudadanía, con humildad y en contacto directo con vosotros y vosotras. Para nosotros formar parte de lo municipal es otro ámbito más de la ciudadanía, un área importante. Pero el verdadero motor de la ciudadanía son las asociaciones locales, los agentes sociales y los ciudadanos y ciudadanas comprometidas”.

UDAL KORPORAZIO BERRIA

NUEVA CORPORACIÓN MUNICIPAL

Ekainaren 17ko Udalbatzan, zinegotzi karguei zin egin ondoren, Mikel Arruti Salaberria Lezoko alkate berri hautatu zuten. Lezoarra da bera, 1977an jaioa.

Jesus Mari Martiarenaren eskutik jaso zuen zumitzezko uztai. Martiarena bera (alkategai zelarik) ez zuen zinegotzi kargua hartu eta bere ordeze Ion Pombarri egokitu zitzaion azken zinegotzi kargua.

Mikel Arrutik ilusio handiz ekin zion alkate karguari: “Ohore bat da Lezoko alkatea izatea. Taldean egin beharreko lana da eta izan dezakedan talderik onena daukat nirekin”.

“Eskerririk asko udal hauteskundeetan gure taldeari, Lezoko EH Bilduri, bozka eman zenioten herritar guztiei, eta baita beste aukera baten alde egin zenutenei ere. Herritar guztiak kontuan hartuz gobernatuko dugu, apaltasunez eta herritarrekin harreman zuzena izanez. Guretzako udalgintzan aritzea herrigintzaren beste arlo bat da, arlo garrantzitsua. Baina herrigintzaren benetako motorra herriko elkarte, eragileak eta herritar konprometituek dira.”

“Lezon ez dugu aginte makilik ematen, gu ez garelako agintariak, gu herritarren ordezkariak gara. Zumitzezko uztaiak ongi irudikatzen du gobernu talde batek egin behar duen egiteko modua. Borobila da, ertzik gabea, herritarrak erdigunean izan ditzagun, inor iskin batean utz ez dezagun. Sendoa da, aurrean ditugun erronkei sendotasunez erantzuteko baina aldi berean malgua da, egoera zaurgarrian dauden herritarren aldeko politikak malgutasunez gauzatu ditzagun. Irekia da, gainerakoen iritziak, ideak, proposamenak entzun, jaso eta kontuan har ditzagun. Gardena da, gardentasunez lan egin dezagun eta guztiona den dirua zertarako baliatzen dugun eta nola kudeatzen dugun herritar orok jakin dezan. Azkenik, zuntz asko kiribilduz osaturik dago, guztion lana beharrezkoa delako gure herriaren alde egiteko: herritarrak, elkarte eta eragileak, alderdiak eta Udala. Elkarlanean aritu behar dugu Lezo indartsu batek aurrera egin dezan. Horrela ulertzen dugu Udal baten jarduna eta horrelakoa izango da gure gobernatzeko eredua: aurreraoia, feminista, independentista eta euskaltzalea den proiektua. Proiektu hori da herritarren esku jarri nahi duguna. Guztion artean, Lezo herri biziago eta bizitzeko atseginoago bat eraikitzen jarrai dezagun”.



EH BILDU
Mikel Arruti
Salaberria



EH BILDU
Miren
Ormazabal
Urkizu



EH BILDU
Aitzol
Saizar Viaña



EH BILDU
Eneritz
Arruti Osanbela



EH BILDU
Iker
Salaberria
Urkizu



EH BILDU
Mireia
Kuesta Unzain



EH BILDU
Jon Legorburu
Arrastua



EAJ-PNV
Laura Martínez
Vizuete



EAJ-PNV
Juan Luis Urkizu
Urretabizkaia



EAJ-PNV
Alaitz De La
Maza Falque



EAJ-PNV
Irlentz Ortega
Ugalde



EAJ-PNV
Ion Pombar
Hospitaler



PSE-EE
Joxean Sanchez
Gallardo

ORDEZKARI POLITIKOEN ARDURAK ETA DEDIKAZIOAK ONARTU ZIREN AZKEN OSOKO BILKURAN

DECIDIDAS LAS RESPONSABILIDADES Y LA DEDICACIÓN DE LOS REPRESENTANTES POLÍTICOS



Herritarrek erabaki eta datu guztien berri izatea nahi du Gobernu Talde berriak

Lezoko Udaleko Gobernu Talde berriak, Mikel Arruti alkatea buru, Udaleko erabaki eta datu guztiak gardentasun osoz zabaltzeko helburua duela adierazi du. "Herritarrek ordezkari politikoen dedikazioak, ardurak eta ordainsarien berri izan behar dutela argi daukagu. Gainera, hartu ditugun lehen erabakien berri jakitea ere garrantzitsua dela uste dugu".

Lehenik eta behin, Mikel Arrutik **Alkateordetzarako** ondorengo kideak izendatu ditu:

1. Alkateordea: Eneritz Arruti Osanbela.

2. Alkateordea: Iker Salaberria Urkizu.

Tokiko Gobernu Batzarreko kide izango diren zinegotziak ere izendatu ditu Lezoko alkateak. Bertan, **nobedade bezala, oposizioko bi alderdiek hitza izango dute, azken legealdietan ez bezala.** Horrela, EH BILDUK bere hauteskunde-kanpainan egin zuen promesa beteko du. Horrela geratuko litzateke osatua Tokiko Gobernu Batzardea:

Mikel Arruti Salaberria (EH Bildu)

Eneritz Arruti Osanbela (EH Bildu)

Iker Salaberria Urkizu (EH Bildu)

Laura Martinez Vizuete (EAJ-PNV)

Jose Angel Sanchez Gallardo (PSE-EE)

5 UDALA

El nuevo Equipo de Gobierno quiere que los y las lezoarras conozcan toda la información y los datos

El nuevo equipo de Gobierno del Ayuntamiento de Lezo, encabezado por el alcalde Mikel Arruti, afirma que tiene el objetivo de difundir con total transparencia todas las decisiones y datos del Ayuntamiento. "Tenemos claro que la ciudadanía debe conocer la dedicación, responsabilidades y remuneración de los representantes políticos. Además, creemos que es importante que conozcan también las primeras decisiones que hemos tomado".

En primer lugar, Mikel Arruti ha nombrado para **Tenientes de Alcalde** a los siguientes miembros:

1. Teniente de Alcalde: Eneritz Arruti Osanbela.

2. Teniente de Alcalde: Iker Salaberria Urkizu.

El alcalde de Lezo también ha nombrado a los miembros de la Junta de Gobierno Local. Como novedad, tendrán voz los dos partidos de la oposición, a diferencia de las últimas legislaturas. De esta manera, EH Bildu cumple la promesa que hizo en la precampaña.

La Junta de Gobierno Local quedará conformada de la siguiente manera:

Mikel Arruti Salaberria (EH Bildu)

Eneritz Arruti Osanbela (EH Bildu)

Iker Salaberria Urkizu (EH Bildu)

Laura Martinez Vizuete (EAJ-PNV)

Jose Angel Sanchez Gallardo (PSE-EE)

Arloetako ardura banaketari dagokionez, ondorengo proposamena onartu zen:

Las responsabilidades de las diferentes áreas serán las siguientes:

AISIALDIA TIEMPO LIBRE



Aitzol Saizar / Mireia Kuesta

AUZOAK BARRIOS



Jon Legorburu / Iker Salaberria

BARNE ANTOLAKETA ETA ENPLEGUA ORGANIZACIÓN INTERNA Y EMPLEO



Eneritz Arruti / Mikel Arruti

EUSKARA EUSKERA



Iker Salaberria / Mikel Arruti

FEMINISMOA FEMINISMO



Mireia Kuesta / Eneritz Arruti

GAZTERIA JUVENTUD



Aitzol Saizar / Eneritz Arruti

GIZARTE ZERBITZUAK SERVICIOS SOCIALES




Miren Ormazabal / Mikel Arruti

HEZKUNTZA EDUCACIÓN



Miren Ormazabal / Mikel Arruti

HIRIGINTZA URBANISMO



Mikel Arruti / Jon Legorburu

INGURUMENA MEDIO AMBIENTE



Jon Legorburu / Mikel Arruti

KIROLA DEPORTE



Mireia Kuesta / Eneritz Arruti

KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN



Iker Salaberria / Aitzol Saizar

KONTRATAZIOA CONTRATACIÓN




Eneritz Arruti / Mikel Arruti

KULTURA CULTURA



Aitzol Saizar / Jon Legorburu

MERKATARITZA COMERCIO



Jon Legorburu / Mikel Arruti

MUSIKA ESKOLA ESCUELA DE MÚSICA



Miren Ormazabal / Mikel Arruti

OGASUNA HACIENDA



Iker Salaberria / Mikel Arruti

PARTE HARTZEA PARTICIPACIÓN



Iker Salaberria / Aitzol Saizar



7 UDALA



Indarrean dagoen legeriaren arabera, toki-korporazioetako kideek ordainsariak jasoko dituzte beren karguak dedikazio eskusiboz edo partzialez betetzen dituztenean. Honen baitan alkatetzak, **alkateari eta bi zinegotzi delegatari dedikazio eskusiboa aitortzea proposatzen du, baita oposizioak izendatutako zinegotziari dedikazio partziala ematea ere**, eta beren karguak betetzeagatik jasoko duten ordainsaria onartzea.

Horiek horrela, alkatetzak Osoko Bilkurari ondorengo proposamena aurkeztuko zion:

- Mikel Arruti Salaberria alkateari, dedikazio eskusiboa 2023/07/10etik aurrera, 42.440,52 euroko soldata gordinarekin.
- Iker Salaberria Urkizu zinegotzi delegatuari, dedikazio eskusiboa 2023/07/10etik aurrera, 42.440,52 euroko soldata gordinarekin.
- Eneritz Arruti Osanbela zinegotzi delegatuari, dedikazio eskusiboa 2023/09/01etik aurrera, 51.950 euroko soldata gordinarekin (Bere lanpostuan duen soldata bera mantentzea proposatu da).
- Laura Martinez Vizuete oposizioak izendatutako zinegotziari, %50eko dedikazio partziala 2023/07/10etik aurrera, 21.220,26 euroko soldata gordinarekin.

En base a la legislación vigente, los miembros de las corporaciones locales percibirán retribuciones por el ejercicio de sus cargos cuando los desarrollen con dedicación exclusiva, o con dedicación parcial, por ejercer responsabilidades que así lo requieran. En su vista la alcaldía propuso **reconocer la dedicación exclusiva al alcalde y dos concejales delegados, así como la dedicación parcial a la concejala designada por la oposición**, y aprobar la retribución que percibirán por el ejercicio de sus cargos.

Por todo ello, la alcaldía elevó al Pleno la siguiente propuesta:

- Al alcalde, Mikel Arruti Salaberria, dedicación exclusiva a partir del 10/07/2023, con un salario bruto anual de 42.440,52€.
- Al concejal delegado, Iker Salaberria Urkizu, dedicación exclusiva a partir del 10/07/2023, con un salario bruto anual de 42.440,52€.
- A la concejal delegada, Eneritz Arruti Osanbela, dedicación exclusiva a partir del 01/09/2023, con un salario bruto anual de 51.950€ (se propone mantenerle el mismo salario que percibe en su trabajo actual).
- A la concejala designada por la oposición, Laura Martinez Vizuete, dedicación parcial del 50% a partir del 10/07/2023, con un salario bruto anual de 21.220,26€.



Organo kolegiatuetan korporazioaren ordezkariak izendatzeko proposamenaren berri ere eman nahi du alkatetzak.

La alcaldía también quiere dar a conocer las designaciones de representantes de la corporación en los órganos colegiados.

ORGANOAK / ÓRGANOS	TITULARRA / TITULAR	ZINEGOTZIA / CONCEJAL
Añarbeko Uren Partzuergoa	Titularra	Eneritz Arruti Osanbela
	Ordezkoa	Jon Legorburu Arrastua
San Markos Mankomunitatea	1. Titularra	Eneritz Arruti Osanbela
	1. Titularraren ordezkoa	Iker Salaberria Urkizu
	2. Titularra	Jon Legorburu Arrastua
	2. Titularraren ordezkoa	Mikel Arruti Salaberria
Behemendi	Titularra	Jon Legorburu Arrastua
	Ordezkoa	Mikel Arruti Salaberria
Oarsoaldea	Titularra	Mikel Arruti Salaberria
	Ordezkoa	Eneritz Arruti Osanbela
Euskal Fondoa	Titularra	Iker Salaberria Urkizu
	Ordezkoa	Eneritz Arruti Osanbela
Eudel	Titularra	Iker Salaberria Urkizu
	Ordezkoa	Eneritz Arruti Osanbela
Udalbiltza	Titularra	Iker Salaberria Urkizu
	Ordezkoa	Aitzol Saizar Viaña



ALDERDI POLITIKOAK



Lau urte luze joan dira azkeneko hauteskundeetatik. Gutako baikotzaren zaurgarritasuna eta guztiok elkar zaintzeko beharra inoiz baino gordinago utzi dizkiguten lau urte. Eta orain aldaketa ekarri duzue Lezoko Udalera. Lezoko Udala gidatzeko ardura eman diozue EH Bilduri. Guregan jarritako konfiantza eskertzea dagokigu, orain. Eta horrekin batera, ondorengo lau urteak hobeak izan daitezzen gure ahalegin zintzoena egiteko konpromisoa hartzea. Ez da erraza izango, arazo eta krisi berriak sortuko dira, baina horiei aurre hartzen edota iniziatibaz erantzuten jakingo dugula espero dugu. Besteak beste, horretarako aliatu onenak ditugula uste dugulako. Zuek, alegia. Lezoarrok eskuz esku lan egin eta agintari onena herria dela erakutsi asmo dugu. Herriarekin eta herriarentzat. Uztailaren 23an dugu herria egiten jarraitzeko hitzordu berria.

Han pasado cuatro años desde las últimas elecciones. Cuatro años que nos han dejado más crudas que nunca la vulnerabilidad del individuo y la necesidad de cuidarnos mutuamente. Y ahora habéis traído el cambio al Ayuntamiento de Lezo. Habéis encomendado a EH Bildu la dirección del Ayuntamiento. Ahora nos toca agradecer la confianza depositada en nosotros y nosotras. Y a su vez, comprometernos a hacer nuestro más sincero esfuerzo para que los próximos cuatro años sean mejores. No será fácil, surgirán nuevos problemas y crisis, pero esperamos que sepamos anticiparnos o responder con iniciativa. Entre otras cosas porque creemos que tenemos los y las mejores aliados y aliadas para ello. Vosotras y vosotros. Queremos trabajar mano a mano con las y los lezoarras y demostrar que el mejor gobernante es el pueblo. Con y para el pueblo. El 23 de julio tenemos una nueva cita para seguir haciendo pueblo.



Maiatzaren 28an udal hauteskundeak gauzatu dira eta Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu guregan konfiantza jarri duten herritarrei, 977 lezoar horiei, eta eskerrak ere herritar guztiei.

Azken hilabeteak hauteskunde giroan bizi izan ditugu. Bitarte horretan, alkatetza eta udal gobernutik EAJ-PNV udal taldeak Lezo hobetzen jarraitu du. Hori horrela, Altamirako bigarren igogailua zabalik da eta Altamirako parke berria egiteko agindua emana. Altzaten eraikiko diren babes ofizialeko 16 etxebizitzetako batean izena emateko aukera zabaldu da. Udalak eta Foru Aldundiak Ibai-ondon, Elias Salaberria kalea eta Jaizkibel hiribide bitartean, biribilgunea egitea adostu dugu. Gaueko 20:00etatik goizeko 08:00etara Guillermo Lazon, Hipolito Gezala, Polentzarrene, Zubitxo eta Elias Salaberria etorbide eta kaleetan lezoarrek bakarrik aparkatu ahal izateko gunea abian jarri dugu.

En la corporación constituida el 17 de junio, el Partido Nacionalista Vasco prosigue trabajando por una Lezo mejor. Somos un equipo sólido, que representa el 40% del nuevo consistorio. Estamos al servicio de Lezo, de todas las personas que conformamos nuestro pueblo.

Somos conscientes de que estamos ante una mayoría absoluta. Desde el Partido Nacionalista Vasco, con mayoría absoluta o sin ella, hemos propiciado el trabajo en común, así lo atestiguan nuestras dos legislaturas. Ahora, desde la oposición, seguimos trabajando por Lezo, en favor del bien común, desde la colaboración y la apertura.

Hay mucho por hacer y seguimos manos a la obra. El nuevo ambulatorio y las 52 viviendas dotacionales de Aralar o el centro cívico en un Arraitoki conseguido para Lezo, nos esperan. Nuestro objetivo: mejorar Lezo. Estamos entregados a Lezo y a su ciudadanía, esa es nuestra meta.

9



Tras las elecciones municipales el PSE-EE (PSOE) ha mantenido su representación en el Ayuntamiento. Agradecer a todas y todos los vecinos que han vuelto a confiar, con su voto, en nosotros y nosotras. En esta nueva Legislatura continuaremos proponiendo actuaciones y proyectos que entendamos reviertan en una mejora del bienestar de las y los lezoarras así como fiscalizaremos la labor del equipo de gobierno como es nuestra obligación. Estamos satisfechos y satisfechas del trabajo realizado en los últimos 8 años en los que hemos sido claves no sólo para la gobernabilidad del Ayuntamiento sino para dar la estabilidad necesaria en momentos muy duros como con la crisis de la COVID19. Así, fruto de nuestra responsabilidad en el departamento de Hacienda, pusimos las bases para que en la actualidad el Ayuntamiento tenga unas cuentas saneadas y una deuda cero. También como responsables del departamento de Medioambiente hemos trabajado para mejorar la calidad medioambiental del municipio y proteger y poner en valor su patrimonio natural. Ejemplo de ello, son la recuperación y naturalización de las regatas, los trabajos de reforestación de los bosques y las labores de limpieza del entorno natural. Igualmente, nos sentimos orgullosos y orgullosas de haber intermediado con departamentos gobernados por el PSE-EE en otras instituciones para lograr ayudas para por ejemplo la construcción de los diferentes ascensores o la contratación e inserción laboral de colectivos vulnerables, así como dotar al Ayuntamiento de dos herramientas clave para el futuro del municipio: El Plan de Movilidad Sostenible y la Agenda 2030.



Finaliza la temporada de Tipi - Topa

Se le ha puesto fin a otro curso de Tipi-Topa. Tras la sesión del 22 de junio los y las participantes se reunieron en la plaza para realizar un delicioso ha-maiketako. Pudieron degustar tortillas de patata y bebidas mientras charlaban en un ambiente excelente.

El nuevo alcalde de Lezo Mikel Arruti se acercó a charlar con los y las participantes para presentarse y conocer más de cerca los detalles de esta iniciativa que gusta tanto a los y las lezoarras.

Tipi-Topa regresará en septiembre, si bien en julio se mantendrá la iniciativa "Martxan" (actividad-equilibrio-flexibilidad-coordinación).

Por lo tanto, los y las lezoarras que quieran darle un poco de "marcha" al cuerpo, tendrán la oportunidad de hacerlo todos los martes de julio a las 11:00 horas en el polideportivo Bekoerrotta.

Tipi Toparen amaiera

Tipi-Toparen ikasturteari amaiera eman zaio. Ekainaren 22an Tipi-Topa saioa egin eta hamaiketako goxoa egiteko bildu ziren parte hartzaileak herriko plazan. Patata-tortillak eta edariak dastatzeko aukera izan zuten, elkarren artean giro bikainean hitz egiten zebiltzan bitartean.

Herriko alkate berria den Mikel Arruti parte hartzaileekin hitz egitera gerturatu zen, bere burua aurkeztu eta ekimenaren nondik norakoak gertuago ezagutzeko helburuarekin.

Tipi-Topa irailean bueltatuko da; dena den uztailean Martxan (indarra-oreka-malgutasuna-koordinazioa) ekimenak bere horretan jarraituko du.

Uztaileko astearteetan, 11:00etan, gorputzari martxa pixka bat eman nahi dioten herritarrek badute aukera Bekoerrotta kiroldegian.



Ohiturak aldatzeko urratsak Lezoko Eskola Kirolean

Pasos para el cambio de hábitos en el Deporte Escolar en Lezo

Eskola Kirolean, kirola, heziketa eta osasuna oso eduki garrantzitsuak dira. Horiek horrela, duela urte batzuk desplazamendu jasangarriak erabiltzeko plana abian jarri zen eta ahalegina egin duten ikastetxe eta ikasleak sarituak izan dira. Poz handia ematen du haur horiek txikitatik desplazamendu jasangarriak egitearen onurak barneratzen joateak, bizitza osoan izango duten jokaera sendotuz. Eskualdeko 11 ikastetxeetako 400 ikasle izan dira urtean zehar gutxienez desplazamendu bat bizikletaz egin dutenak. Horien artean, LEZO HERRI ESKOLAKO ANE ASKASIBAR-ek zozketatutako bizikleta bat irabazi du. ZORIONAK Ane!

El deporte, la educación y la salud son contenidos muy importantes en el Deporte Escolar. Así, hace unos años se puso en marcha el plan de movilidad sostenible y los centros y estudiantes que han realizado un esfuerzo han sido premiados. Es gratificante ver que disfrutan de los beneficios de los desplazamientos sostenibles desde una edad temprana. Gracias a ello normalizarán estos comportamientos para el resto de sus vidas.

400 estudiantes de 11 escuelas de la comarca han realizado al menos un viaje en bicicleta durante el curso. Entre ellas, ANE ASKASIBAR de Lezo Herri Eskola ha ganado una bicicleta sorteada. ZORIONAK Ane!



Tourra, Lezon

El Tour, en Lezo

Uztailaren 2 eta 3an Frantziako Tourra Lezotik igaro zen. Herritar asko lasterketaz gozatzeko elkartu ziren ibilbideko hainbat lekutan. Giro bikaina sortu zen Karlos Saldisen antolatu zen bazkarian adibide gisa. Txirrindularitzak kolorez margotu zuen gure herria eta kirol usaina utzi zuen. Bueltatuko al da laster Tourra Euskal Herrira?

Munduko kirol jarduerarik garrantzitsuena Lezotik igarotzea ikusgarria bada ere, Lezoko Udalak barkamena eskatuko nahi die, berriro, herritarrei, bi egunetan lasterketak eragin zituen eragozpenengatik: trafikoan aldaketak, errepidea itxita...



11

BERRIAK

Los días 2 y 3 de julio el Tour de Francia pasó por Lezo. Muchos vecinos y vecinas se juntaron para disfrutar de la carrera en diferentes puntos del recorrido. Se vivió un ambiente excelente en Lezo, como ejemplo en la comida que se organizó en la plaza Karlos Saldise. El ciclismo pintó de color nuestro pueblo y dejó un aroma deportivo. ¿Volverá pronto el Tour a Euskal Herria?

A pesar de que sea un gran hito que una de las disciplinas deportivas más importantes del mundo atravesase nuestro pueblo, el Ayuntamiento de Lezo quiere volver a pedir disculpas a los vecinos y vecinas por todas las molestias que pudo causar la carrera en los dos días: cambios en el tráfico, cierre de carreteras...

JAIALDIA

ABUZTUA – IRAILA 2023

Kilometro LEZ

HURBILTASUNAREN KULTURA



ABUZTUA Herri eskolako patioan ▼

25
20:00

Des^nuda
Maitane Sarralde



26
20:00

Transir
Rojo Telon



IRAILA Herri eskolako patioan ▼

1
20:00

**Agurea, urpekaria
eta itsasoa**
Hortzmuga



2
21:45

Alive
Lasala



2
22:00

**Ai, ai, ai
badatorrela!**
Orratx! Antzerki taldea



IRAILA Goiko plazan ▼

17
19:00

Nun zira?
Dab



17
Jarraian

Otempodiz
Ertza

